



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 6a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, amatasuna babesteari eta emakume haurdunari laguntzeari buruzkoa. na María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, industria- eta enpresa-politikaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urratsak egin ditzan hizkuntz normalizazioko politikak koordinatzeko batzorde bateratu bat eratzeko. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da lege-esparrua alda dezan elektrizitatea eta elektrizitatearen produkzioa, hornidura eta merkaturatzea herritarren zerbitzura egon daitezen eta energia-pobrezia prebenitzeko. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 201/2002 Foru Dekretuko 2. artikulua eta 202/2002 Foru Dekretuko 8. artikulua alda ditzan. Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da banda zabalaren plan berri bat idatz dezan edo egungo planari eranskin bat egin diezaion, Interneteko konektibitateak izaera soziala eduki behar duela jasoko duena. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Futbol Federazioa, Indarkeriaren aurkako Batzordea eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordea premiatzen ditu beren diziplina kodean atal bat jaso dezaten, indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa eginen duena. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du osasun-kudeatzaileen profesionalizazioaren, burutzak gardentasunez hautatzearen eta bateraezintasunak zabaltzearen alde. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (13. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitio BSH Electrodomésticos España SAKO plantillari, egiten dituen lan-aldarrikapen zilegi eta bidezkoetan. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 108,7 milioi euroko zor publikoa jaulki beharrari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroan Gobernu nazionalista bat dagoela baliatuta estatu bereki bat sortzeko subiranotasun-prozesu bat irekitzearen alde Sorturen eledunak egindako adierazpenei buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren politika ekonomiko eta fiskalari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatera enpresak eta inbertsioa erakartzearen Nafarroako Gobernuak egiten duen lanari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, ama-hizkuntza gaztelania duten familien artean D eredia sustatzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, eremu ez euskaldunean eta euskaldunean euskaraz eta gaztelaniaz egiten den kultur eskaintzari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, eremu mistoan eta ez euskaldunean D ereduan matrikulatutako ikasleentzako garraio- eta jantoki-laguntzei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, euskararen normalizazioari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, bizi diren herrialdekoak izan gabe pertsonak beren hizkuntza, kultura eta tradizioak mantentzeko eskubideari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak aurreikusten duen lan eskaintza publikoari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Esako presa berrian detektatutako mugimenduei buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakunde bulegoetan errotuluak aldatzeari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (22. or.).
- Galdera, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (23. or.).
- Galdera, Eguberriko, Aste Santuko eta udako oporrak aitortzen ez zitzaizkien irakasleek eta irakasle ez diren langileek Hezkuntza Departamentuari aurkeztutako errekurtsioei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, bitarteko lan-kontratua amaiarazteagatik kalte-ordaina dela-eta Hezkuntza Departamentuan aurkeztutako erreklamazio-eskabideei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak bere langileei familia-laguntza ordaintzeko darabilen irizpideari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren menpeko bitarteko funtzionarioen zerbitzu-orrian oporrak aitortzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoko ikasleen garraioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoarekin osasun publikoaren eta lan osasunaren arloetan dagoen lankidetzeta-mailari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (26. or.).
- Galdera, Nafarroan hutsik dauden etxebizitzetara eta Nafarroako Gobernuaren jabetzako higiezinari eta lurzati eraikigarriei buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, amatasuna babesteari eta emakume haurdunari laguntzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Ana María Beltrán Villalba andreak Foru Lege proposamena aurkeztu du, amatasuna babesteari eta emakume haurdunari laguntzeari buruzkoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin amatasuna babesteari eta emakume haurdunari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Amatasuna babesteari eta emakume haurdunari laguntzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua bigarren idatz-zatiak ezartzen duenez, botere publikoek amen babes osoa segurtatzeko betebeharrak dute, edozein dela haien egoera zibila.

Printzipio gidari horretan oinarritzen dira lege honen zioak eta edukia, legearen funtsezko helburua baita arrisku sozial berezian edota babesgabe dauden emakume haurdunen babes osoa. Gizarte garatu batean, emakumeek ez lukete gizartearen babesik gabe geratu beharko haurdun egoteaga-

tik, baina sarri gertatzen da, ezusteko haurdunaldi baten aurrean, emakumea bakarrik eta abandonaturik sentitzea.

Ustekabeko haurdunaldi batek sortzen ahal dizkion arazo errealean aurrean emakumea bakarrik eta abandonaturik uzten duen gizarte bat ez da gizarte zuzena, demokrazia aurreratu baten berezko eskakizunei erantzuten diena, gure Konstituzioak exijitzen duen estatu sozial baten barrenean.

Hori dela eta, lege honek lehentasuna ematen die emakume haurdunetzako laguntza publikoei eta emakumeek laguntza horiei buruzko aholkua eta informazioa jasotzeko duten eskubideari, eta babes berezia ematen die babesgabe edota gizarte bazterketako arriskuan dauden emakume adingabeei; izan ere, laguntzak ezartzen ditu haurdunaldirako eta erditze ondorenerako, eta bermatzen du, halaber, ikasketekin jarraitu ahal izatea haurdunaldiarekin eta amatasunarekin aurrera eginda ere.

Aipatzekoa da doako informazio-telefono baten sorrera, emakume haurdunari zuzendutakoa, bai eta Nafarroako Gobernuaren webgunean berriazko atal batena ere, emakumeei ahalbidetuko diena Nafarroako Foru Komunitateak eskaintzen dituen laguntza guztiak ezagutzeko.

Foru legeak hamar artikulua ditu, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen.

1. artikulua. Xedea

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatearen jarduketaren esparru juridikoa egituratzea amatasunaren babesaren eta haren laguntza sozialaren alorrean. Horren baitan, emakume haurdunak ama izateko duen eskubidea bermatu eta babestera zuzenduriko neurriak eta jarduketak diseinatuko dira, batez ere babesgabetasunean edo gizarte bazterketako arriskuan dauden emakumeentzat, eta xede hori lortzeko beharrezkoak diren baliabideak, alor sozial eta

juridikokoak, hezkuntzakoak, osasun arlokoak edo laguntzakoak, ezartzea ahalbidetuko da.

2. artikulua. Aplikazio esparrua

Foru lege hau lehentasunez aplikatuko zaio Nafarroako Foru Komunitatean eroldaturik dagoen emakume haurdun orori, bere egoera pertsonal edo sozialarengatik legean ezarritako onurak eskuratzeko moduan badago.

Foru lege honetan aurreikusitako xedapenak aplikatzekoak izanen zaizkie administrazio publikoari eta Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuak edo osasun arlokoak ematen dituen entitate orori, titulartasun publikokoak edo pribatuak diren kontuan hartu gabe.

3. artikulua. Printzipio gidariak

Haurdun dagoen emakume orok, eta, bereziki, babesgabetasunean edo gizarte bazterketako arriskuan dagoenak, eskubidea izanen du aholku eta informazio pertsonalizatua jasotzeko, ama izateko eskubidea baliatzeko eta bere haurrari arretarik onena emateko jaso ditzakeen babes eta laguntzei buruz.

Horretarako, Emakumeari Laguntzeko Zentroetan emakumeari informazioa ematea sustatuko da. Hala, xedea izanen da informazio xehakaturik ematea emakumearen beharrezkoetarako egokiak diren estatu, erkidego eta toki esparruko babes sozialerako baliabide publiko nahiz pribatuei buruz; bereziki, Errenta Bermatuari eta amatasunerako, etxebizitza alorreko eta laneratzeko eta gizarteratzeko laguntzei buruz.

Halaber, laguntza horiek eskuratzeko moduari buruzko orientabidea emanen zaio emakumeari, bai eta laguntza horiek izapidetzeko eta kudeatzeko laguntza ere, beharrezkoa denean.

4. artikulua. Jarduteko ildoak

Ezarritako helburu eta printzipioei jarraikiz, amatasunaren arreta sozialerako politikak ondoko ildoak kontuan hartuta egituratuko dira:

a) Amatasunerako laguntza ematea eta jaio gabeko ernaldia babestea, Nafarroako Foru Komunitateko ongizate estatuaren printzipio gisa.

b) Amatasunaren babeserako politiken zeharkotasuna sustatzea, bai eta horien antolamendu eta instrumentalizazioarena ere, Nafarroako Foru Komunitatearen jarduketara-esparru guztietan.

e) Haurdun diren emakumeak gizarteratzeko eta laneratzeko neurriak eta programak sustatzea, bermatze aldera emakume horien autonomia pertsonala eta ondarezkia, ahulezia- edo bazterkeria-egoeran daudenean.

e) Bikotekidearen erantzunkidetasuna sustatzea, bidezkoa bada, emakumearen haurdunaldian, bai eta seme-alabekiko erantzunkidetasuna ere.

5. artikulua. Arretarako lehentasuna eta ez baztertea.

Nafarroako Foru Komunitatearen gizarte politika guztietan, lehentasuna emanen zaie emakume haurdunei kasuan kasuko prestazio edo laguntzak jasotzeko, betiere haien egoerarako egokiak badira.

Emakume haurdunen lehentasuna bermatuko da etorkinei zuzenduriko gizarteratze programeetan.

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak edo gizarte politikaren alorreko foru administrazio eskudunak zehaztuko du babesgabetasun- edo gizarte bazterketako arrisku-egoera.

Administrazio publikoek neurri egokiak hartuko dituzte haurdun dauden emakumeek lan-bazterketarik edo -kalterik jasan ez dezaten beren haurdunaldi edo amatasunarengatik, bai une horretan duten lanpostuan, bai geroago lanpostu berri bat eskatzerakoan.

6. artikulua. Derrigorrezko hezkuntza, gazte haurdunak eta adingabeak

1. Arreta berezia eskainiko zaie babesgabetasunean edo/eta gizarte bazterketako arriskuan dauden 30 urtez beherako emakume haurdunei, eta, bereziki, adingabeei. Hauek eskubidea izanen dute berariazko laguntza jasotzeko, eta laguntza horrek ondoko prestazioak hartuko ditu, gutxienez:

i. Amatasunerako hezkuntza, bere adin eta egoerara egokitua.

ii. Laguntza psikologikoa, erditzearen aurretik nahiz ondoren.

iii. Familian esku hartzea.

iv. Laguntza berezia ikastetxean, emakumearen ikasketara plana haurdunaldira eta amatasunera egokitzeko.

2. Derrigorrezko ikasketak egiten ari diren adingabeei dagokienez, eskolako ordutegiak eta planak bere beharren arabera egokituko dira, haurdunaldian zehar eta erditzearen ondorengo bi urteetan.

Hezkuntzaren arloko arduradunek zainduko dute aurreikuspen hori guztiz betetzen dela, eta behar diren bitartekoak eta neurriak jarriko dituzte haurdunaren errendimendu akademikoa ahal den

onena izan dadin, haurdunaldiaren eta amatasunaren ondoriozko betekizunekin bateragarria izateko moduan.

7. artikulua. Informaziorako eskubidea

Emakume haurdun guztiei eta beren familiei lege honetan ezarritako oinarritzko informazioa emanen zaie Nafarroako Foru Komunitatean dau den laguntza- eta osasun-zentro guztietan.

Oinarritzko informazioak jasoko du, gutxienez, amatasunari laguntzeko baliabideen gida bat, bai eta alor horretan indarrean dagoen legediari buruzkoa eta osasun araudiak eskatzen duen baimen informatua emateko aurreikusitakoa ere.

Horretaz gain, adopzioaren edo harreraren aukerei buruzko dokumentazioa eta informazioa ere jasoko du, bai eta horiei buruzko araudiari eta Nafarroako Foru Komunitatean jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa ere. Informazioa modu pertsonalizatuan emanen da.

Oinarritzko informazioan era nabarmenean agertuko da hurrengo artikuluan aurreikusitako telefono zenbakia, erabilera orokorrekoa eta doakoa.

8. artikulua. Doako telefonoa eta web gunea

Nafarroako Gobernuak bere webguneko atal berezi eta ikusgarri batean jarriko du foru lege honetan xedatutako informazio guztia, bai eta garapen-arau eta -ekimenak ere, eta haren ezagutza eta eskuragarritasuna ahalbidetuko du egoki diren giroetan.

Gainera, Nafarroako Gobernuak erraztasunak emanen ditu doako telefono bat egon dadin, erabilera orokorrekoa, haurdunek laguntzei eta informazio-zentroi buruzko informazioa eskuratu ahal izateko.

9. artikulua. Jarduketan konfidentzialtasuna

Haurdun dagoen emakumearekiko jarduketa eta prozeduretan haren intimitatea, balioak, sinesmenak eta datu pertsonalen konfidentzialtasuna babestuko dira, bai eta haren zaintza edo babespean den beste edozein pertsonarenak ere, eta

zorrotz errespetatuko dira Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan jasotako xedapenak.

10. artikulua. Lankidetzak hitzarmenak eta dirulaguntzak

1. Nafarroako Gobernuak Foru Administrazioaren eta toki entitateen arteko lankidetzak bultzatuko du emakume haurdunentzako laguntza- eta babes-neurrien eraginkortasuna hobetuko duten lankidetzak hitzarmenen bidez, edota bidezkotzat jotzen duen beste edozein modutan.

2. Aurreko idatz-zatian aipatu hitzarmenen xede berezia izanen da lege honetan aurreikusitako laguntzei buruzko ezagutza zabaltzea, bai eta emakume haurdunek eskubidez jaso dezaketen beste edozein laguntzei buruzkoa ere.

3. Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak eman eta itunak egin ahalko ditu emakume haurdunentzat lege honetan aurreikusitako aholkuak eta laguntza eskaini nahi dituzten gizarte ekimeneko zentroekin.

Xedapen gehigarri bakarra

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean, plan integral bat prestatuko du, emakume haurdunentzako laguntza- eta babes-sare eraginkor bat gauzatzeko ekintzak eta helburuak aurreikusiko dituena.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Garapenerako gaikuntza

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hau aplikatu eta garatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, industria- eta enpresa-politikaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko jabeldura, industria- eta enpresa-politikaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuari zuzendutako jabeldura, industria- eta enpresa-politikaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urratsak egin ditzan hizkuntz normalizazioko politikak koordinatzeko batzorde bateratu bat eratzeke.

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urratsak egin ditzan hizkuntz normalizazioko politikak koordinatzeko batzorde bateratu bat eratzeke.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari

ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamendua xedatutakoari jarraiki, honako mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Hizkuntza politikaren ikuspegitik funtsezkoa eta ezinbestekoa da euskararen lurraldea osatzen duten hiru eremu politiko-administratiboaren arteko

koordinazioa eta elkarlana. Euskara hiru eremu hauek biltzen dituzten lurralde guztien ezaugarria da, eta hiru eremuetako lurraldeak eta herritarrak elkartzen ditu.

Hizkuntza politikaren inguruko koordinazioa eta elkarlana bideragarria eta eraginkorra izan dadin, motor izango diren batzorde eragile eta eraginkorrak izatea ezinbesteko baldintza da, non hizkuntza normalizazioaren erantzukizuna duten erakunde nagusiak bilduko diren.

Azpitarratu beharra dago, bestalde, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan Herri Elkargoa sortzen eta eraikitzen ari den momentu historiko honetan, hiru eremu politiko-administratiboak gaituak eta ahaldunduak izango direla, lehen aldiz eta berdintasunean, instituzio arteko harremanetan elkarlanean jarduteko eta koordinatzeko, haietako bakoitzaren borondate politikoa halakoa izanez gero.

Akordio proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: Europako markoak eskaintzen dituen mugaz bi aldeetako eskemen baitan, hizkuntza normalizaziorako politikak koordinatzeko batzorde komuna sortzeko urratsak egin ditzala, eta horretarako jar dadila harremanetan partaide izan daitezkeen erakundeen ardura-dunekin. Koordinazio batzorde horrek erakunde hauetako ordezkariak osatuko lukete: Nafarroako Gobernuak; HELEP Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publikoa, Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioa; Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea; Eudel; Baigorri, Baiona, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Maule hiriburu-udalak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; eta Udalbiltza.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da lege-esparrua alda dezan elektrizitatea eta elektrizitatearen produkzioa, hornidura eta merkaturatzea herritarren zerbitzura egon daitezen eta energia-pobrezia prebenitzeko.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita lege-esparrua alda dezan elektrizitatea eta elektrizitatearen produkzioa, hornidura eta merkaturatzea herritarren zerbitzura egon daitezen eta energia-pobrezia prebenitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Pobrezia energetikoa da familia batek bizi duen egoera, baldin eta ezinezkoa badu energia-zerbitzu aski ordaintzea bere etxeko beharrak asetzeko edo dituen diru-sarreretatik parte handiegi bat erabili behar badu bere etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko. Pobrezia energetikoa baldintzatzen duten aldagai nagusiak hiru dira: familiaren diru-sarrerak, energiaren kostuak eta etxebizitzaren kalitatea, efizientzia energetikoaren aldetik.

Ingurumen-zientzien Elkarteak pobrezia, ahultasun eta desberdintasun energetikoari buruz egindako azken azterlanaren arabera, Espainiako etxeen % 11tan –hau da, 5,1 milioi pertsona– diote ezin dutela beren etxebizitza tenperatura

egoki batean mantendu neguko hilabeteetan. Ehuneko hori % 22 igo da bi urtean soilik, 2012tik 2014ra. Azterlan horretan orobat esaten da Espainiako etheen % 21 ari dela pobrezia energetikoari lotutako baldintzak pairatzen, eta % 6k –hau da, 2,6 milioi pertsona– beren diru-sarreraren % 15 baino gehiago erabiltzen dutela energia-fakturak ordaintzeko. Gainera, txosten horrek agerian uzten duenez, pobrezia energetikoa handiagoa da landa eremuetan edo biztanle gutxikoetan; hortaz, eremu horiei ez litzaieke hiri eremuak edo hiri-inguruak bezala heldu beharko.

Azterlan horrek halaber agerian uzten duenez, pobrezia energetikoak ondorioak ditu pertsonen osasunean –bereziki, tenperatura egokiko etxebizitza batean bizitzeak–, baina alderantziz ere gertatzen da: osasun-arazoak dauden etxeetan aukera handiagoa dago pobrezia energetikoko egoera bat pairatzeko.

Hala, 2014an, osasun txarreko pertsonaren bat zeukaten etheen % 18k aitortzen zuten ezin zutela beren etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu; osasun txarreko pertsonarik ez zeukaten etxeetan, berriz, % 10ek zeukaten arazo hori. Adierazle horren arabera, osasun txarra daukatela aitortzen duten etxeetan ia bikoiztu egiten da pobrezia energetikoak ukitutako etheen ehunekoa. Azterlanak dio pobrezia energetikoko egoera egon litekeela neguko heriotza gehigarrien % 30en atzetan; alegia, 7.000 pertsona baino gehiago urtaro horretan.

Kalkuluen arabera, Nafarroan 100.000 pertsona inguruk pairatzen dute pobrezia energetikoa, eta beharrezkoa da, nahiz eta egoera hori neurri handi batean arindu duten Eskubide Sozialetako Departamentuak Iberdrolarekin, Gas Natural Fenosarekin eta CHC Energía-rekin pobrezia energetikoa prebenitze aldera sinatu dituen hitzarmenek, administrazio publikotik kontrolatzea sektore hori, prezioen fluktuazioa eta herritarren oinarriko premiak negoziazio-gai izatea eragozteaz gain.

EBk ere bat egiten du diagnosi horrekin, eta hurrenez hurren elektrizitatearen eta gasaren barne-merkatuari buruzko 2009/72/EE eta 2009/73/EE zuzentarauetan hainbat betekizun ezartzen dira jada, estatu kideak behartzen dituztenak neurriak hartzera pobrezia energetikoaren fenomeno honi heltzeko.

CESE-Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren 2011ko “Pobrezia energetikoa liberalizazioaren eta krisi ekonomikoaren testuinguruan” izeneko irizpenak adierazten du pobrezia energetikoa lehentasun sozial berri bat dela eta laguntza

behar duela maila guztietan, eta proposatzen du pobrezia energetikoa kontuan hartzea edozein politika energetiko prestatzerakoan.

Eta 2013ko irizpen batean –“Pobrezia energetikoari aurrea hartzeko eta aurka egiteko europar ekintza koordinatu baten alde”–, Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialak zioen energia funtsezko ondasun komuna dela, ezinbestekoa delako eguneroko jarduera guztietan, eta hiritar bakoitzari ahalbidetzen diola bizimodu duina edukitzea, eta ondasun komun hori ez edukitzeak, aldiz, zorigaitza dakarrela. Halaber dio pobrezia energetikoak fisikoki eta sozialki hiltzen duela.

Bestalde, EB27ko herrialdeetatik Espainiako Estatuak da elektrizitatearen prezio garestienak dituenak, Maltaren eta Ziperren atzetik (FACUA 2012). Gurutze Gorriaren 2012ko datu batzuen arabera, bi urtean gasa % 22 garestitu da; argia, % 34; ura, % 8,5; eta butano-botila, % 23. Eurostaten arabera, 2001etik 2012ra, Espainian elektrizitatearen faktura, batez beste, % 105,1 garestitu da. 2007tik 2012ra, % 49. 2006tik azken igoeretara arte kontatzen badugu, kontsumitzaile txikiarentzat igoera ia % 100ekoa izan da, eta horri krisi ekonomikoa gehituta, are zailagoa gertatzen zaie pertsona zaurgarrienei faktura energetikoa ordaintzea, eta gogor handitzen dira pobrezia energetikoa eta horniduraren etenak. Espainiako energia-sistemaren aldrebeskeriaren beste adibide bat besterik ez da energiaren prezioak hotz-bolada bete-betean igotzea.

Espainiako Estatuan ez dago berariazko politikarik, gero eta familia eta etxe gehiagotan pairatzen duten pobrezia energetikoari aurrea hartzekorik eta familia guztiei bizirauteko gutxieneko kontsumo batzuk bermatzekorik, familiako kide kopuruaren eta urtaroaren arabera. Estatuak gaurko gizarte bonoa hobetu beharko luke, etxebizitzaren baldintzak eta familiarren diru-sarrera maila ere kontuan hartzeko, eta ez kontratatutako potentzia edo lan/familia egoera bakarrik. Halaber, butano-gaserako gizarte bono bat ezartzeko aukera aztertu beharko litzateke, beste herrialde batzuetan jadanik egiten duten bezala.

Alderdi Popularraren Gobernuak abiarazitako energia-merkatuaren erreformak ez dio benetako erantzunik ematen pobrezia energetikoaren fenomenoari, eta, aldi berean, tarifa-defizit delakoak eta Auzitegi Gorenak bonu sozialaren finantzaketa dela-eta oraintsu emandako epaiak familien energia-faktura are gehiago igotzea ekar lezakete. Sektore elektrikoaren ustezko liberalizazioak ez du merkeago egin elektrizitate-horniduraren prezioa, alderantziz baizik. Tarifa defizitaren arazoa ez konpontzea pobrezia energetikoaren gorakadaren

arrazoi nagusi bilakatzen ari da, hura konpontze aldera kontsumitzailearentzako prezio finkoak handitzera jotzen den neurrian, Gobernuak ezikusiarena egiten duen bitartean.

Europar badira zenbait esperientzia zeinetan, fakturak ordaintze aldera kolektiborik ahulenei emandako laguntza puntualez gain edo aurrezpenera eta efizientzia energetikora zuzendutakoez gain, unerik kritikoenetan hornidura bermatzen baita. Helburua da ekiditea kontsumitzaile ahulenei hilabeterik hotzenetan hornidura etetea; alegia, adinarengatik, osasun-egoerarengatik, desgaitasunen bat edukitzeagatik edo finantza-segurtasun gabezia larrian egoteagatik beren ongizate pertsonala eta beren familien gainontzeko kideena bermatzerik ez duten pertsoneri.

Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkartean argi daukagu pobrezia energetikoarekin amaitzeko estrategiaren gakoa dela elektrizitate- eta gas-konpainiak nazionalizatzea, sektore hori zerbitzu publikotzat jotzen dugulako, gaur egun duen estatusari kontrajarririk; hots, elektrizitate- eta gas-konpainia handientzako negozio galanta izateari.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du lege-esparrua alda dezan, halatan elektrizitatea eta horren produkzioa, hornidura, banaketa eta merkaturatzea herritarren zerbitzura egon daitezen, eta pobrezia energetikoa prebenitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du sektore elektrikoa nazionaliza dezan, horrela ekonomiako sektore estrategiko hori interes orokorraren zerbitzura jartzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea alda dezan, BEZ murriztu bat ezarriz etxeko erabilerarako gasaren eta elektrizitatearen preziorako.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 201/2002 Foru Dekretuko 2. artikulua eta 202/2002 Foru Dekretuko 8. artikulua alda ditzan.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 201/2002 Foru Dekretuko 2. artikulua eta 202/2002 Foru Dekretuko 8. artikulua alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau Garapen Ekonomikorako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko eskaera aurkezten du.

Ikuskizunetarako kafetegiaren lizentzia duten lokalen jarduera Nafarroako Foru Komunitatean 201/2002 Foru Dekretuaren bidez arautzen da –irekitzeko eta ixteko ordutegiari dagokionez– eta 202/2002 Foru Dekretuaren bidez –jardueren katalogoari, erregistroari eta lizentziei dagokionez–. Hain zuzen ere, ordutegiei dagokiena 201/2002 Foru Dekretuaren 2. artikulua arautzen du, 656/2003 Foru Dekretuak emandako testuarekin.

Ikuskizunetarako kafetegiaren lizentzia duten lokalek (D taldean sartuta, taberna bereziekin batera) irekitzeko eta ixteko ordutegi orokorra 13:00etatik 03:30era bitartekoa dute, eta ordu erdiz luzatzen ahal dute (04:00ak arte) larunbat eta jai-egunetan.

Ordutegi muga horrek lehiatzeko desabantaila argian uzten ditu lokal horiek, bai Nafarroako Foru Komunitateko diskoteka eta dantzatokiak alderatuta (ordutegi orokorra 06:00ak arte baitute) bai autonomia erkidego mugakideetan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Errioxa eta Aragoi) gisako ezau-garriak dituzten lokalekin alderatuta.

– Euskal Autonomia Erkidegoan, ikuskizunetarako kafetegiak, oro har, 04:30 dute ixteko ordua, baina udan 05:00ak arte luzatzen ahal da, eta ostiral, larunbat eta jai egunetan, 06:00ak arte.

– Errioxan, ixteko ordutegia 03:30a da astegunetan, eta 04:00ak ostiral, larunbat eta igandee-tan. Gainera, ordutegi luzatuak dituzte egun jakin batzuetan (Inauteriak, Aste Santua, herrietako jaiak, zubiak, Eguberriak eta abar).

– Aragoi, ixteko ordutegia 05:30a da. Ordu erdiz luzatzen ahal da lokala husteko, eta 06:30a arte ere luzatzen da ostiral eta larunbatetan eta jai egunen bezperetan.

Alderaketa hau gainerako autonomia erkidego gehienekin egin daiteke. Beraz, ondorioztatu behar da Nafarroan indarra duten ordutegiak askoz ere estuagoak direla. Ikuskizunetarako kafetegi gisa diharduen establezimendu batek, definizioz, askotariko jarduera kulturalak programatzen ditu (kontzertuak, ekitaldiak, monologoak eta abar), eta erkidego mugakideetako gisako lokalek baino askoz ere murrizketa gehiago ditu; eta lehiatu beharra dauka, halaber, diskoteka eta dantzatokiak (egituraren eta zerbitzuen aldetik pareko eskakizunak baitituzte), desabantaila nabarmeneko egoeran.

Era berean proposatzen da aldatzea establezimendu horiei aplikatzen zaien soinu-muga, diskoteka eta dantzatokiei eskatzen ez zaiena, lokal horiek etxebizitzetarako erabilera ez duten eraikin batean kokatzen ez direnean.

Beste alde batetik, ordain modura, ostalari-tzako merkataritza-ustiategiaren eredu horri aplikatzen zaion araudiari heldu eta diskotekekin parekatzea nahi duten lokalei eskatuko zaie urtero ekitaldi kulturalen gutxieneko eskaintza bat egitea (kontzertuak, ikuskizunak, monologoak, haur edo gazteendako ekitaldiak, eta abar).

Hori guztia dela-eta, behean sinatzen duen foru parlamentariak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du alda dezan 201/2002 Foru Dekretuaren 2. artikulua, ikuskizunetarako kafetegiaren lizentzia duten lokalak ixteko ordutegiei dagokien arloan, haiak taberna berezien ordutegietatik askatuz eta aipatu araudiaren F) motako lokalen (diskotekak eta dantzatokiak) ordutegiak berbinduta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du alda dezan 202/2002 Foru Dekretuaren 8. artikulua, zeinak onesten baitu establezimenduen, ikuskizun publikoen eta josteta jardueren katalogoa, eta arautzen baititu lokalen eta enpresen erregistroak, honela:

– Aipatu artikulua 4. eta 5. idatz-zatietan ezartzen den soinu-muga kentzea.

– Kultur programaziorako gutxieneko eskakizun batzuk ezartzea, halako moduan non lizentzia mota hori eduki nahi duten lokalek urtero kultur arloko 15 ekitaldi, gutxienez ere, justifikatu behar-ko dituzten.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da banda zabalaren plan berri bat idatz dezan edo egungo planari eranskin bat egin diezaion, Interneteko konektibitateak izaera soziala eduki behar duela jasoko duena.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita banda zabalaren plan berri bat idatz dezan edo egungo planari eranskin bat egin diezaion, Interneteko konektibitateak izaera soziala eduki behar duela jasoko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2016aren bukaeran eta 2017aren hasieran Nafarroako Gobernuak Banda Zabalaren 2016-2021 aldirako Plan Zuzendaria aurkeztu du, hala Gobernuaren egoitzan nola Nafarroako Parlamentuan. Aipatu planean lau jarduera-ardatz, ongi definituak, jasotzen dira: herritarrak, lurraldearen egituraketa, administrazioarako zerbitzuak eta enpresa-ehundura. Horrekin batera jasotzen dira hainbat printzipio estrategiko, inbertsio-eredu batzuk eta, azkenik, jardun-esparru batzuk, asmo dutenak abiadura handiko internet-konexioarekin Nafarroako Foru Komunitateko ahalik eta bazter gehienetara iristea.

Hala ere, behin betiko agiria osatzen duten 305 orrialdeetan jasotzen den gauza bakarra da fisikoki hedatzea interneterako konektibitatearen funtsezko zerbitzu hori, azpimarra jarri lankidetzat publiko-pribatuan, operadore pribatuei Nafarroako Gobernuaren azpiegiturak erabiltzeko

aukera ematean, eta neutraltasun teknologikoaren printzipioaren nahiz sare irekiak erabiltzea onartzearen egokitasunean. Baina, itxuraz, hedatze-erabaki horiek guztiek ez dute ekarri banda zabaletik kanpo gera litezkeenek hori eskuratu ahal izatea, dela arrail teknologikoaren fenomenoarengatik, dela Nafarroako familia eta pertsona askoren ahalmen ekonomikoaren ondorioengatik.

Administrazioak erronka nagusietako bat du arrail digitala murriztea, eta teknologiara iristeko distantzia horrek are baztertuago uzten ditu gizarteko estamentu batzuk, errealitate sozio-ekonomikoak jadanik gogor zigortu dituenak. Izaera geografikoa duen arrail digitala da Nafarroako Gobernuaren Banda Zabalaren Planak aintzat hartzen duen bakarra, baina arrailaren izaera izan daiteke, halaber, soziala, ekonomikoa, belaunaldikoa, generokoa edo funtzionala, eta horiek guztiak ez dira konpontzen, inola ere, Banda Zabalaren Planean adierazitakoarekin, horretara iritsi ahalko baita, bakarrik, Nafarroako populazioaren portzentaje bat, prestazio handietako konektibitatea haien etxearen ondo-ondotik iragaten denean ere.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Banda zabalaren plan berri bat idatz dezan, edo egungo planaren eranskin bat egin dezan, interneteko konektibitateak duen nahitaezko izaera soziala aintzat hartuko duena.

– Idazketa berri horretan konexiorako laguntzak sar ditzan egoera ahulenean dauden familientzat, baremoak ezarri diru-sarreraren araberako esku-hartzerako.

– Idazketa berri horretan konexiorako laguntzak sar ditzan gazteentzat, lurreko konexioetarako ekarpenak barne, emantzipazioaren kasuan, edo aireko konexioetarako ekarpenak, diru-sarrera txikiak dituzten familietako gazteentzat.”

– Idazketa berri horretan laguntzak sar ditzan landa-eremuko zerbitzuaren erabiltzaileentzako gainkosturako; izan ere, seinale-garraioaren izaeragatik, fidagarritasun eta abiadura urrienerako konexioa izateaz gain, kostuak handiagoak izaten ditu.

– Idazketa berri horretan Internet erabiltzeko prestakuntza plan bat sar dezan, 65 urtetik goitikoentzat.

– Interneteko doako konektibitatea ezar dezan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeendako harrera-pisuetan, bai eta haiek leku berri batera joaten direnean ere.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 25ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Futbol Federazioa, Indarkeriaren aurkako Batzordea eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordea premiatzen ditu beren diziplina kodean atal bat jaso dezaten, indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa egingen duena.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Futbol Federazioa, Indarkeriaren aurkako Batzordea eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordea premiatzen baititu beren diziplina kodean atal bat jaso dezaten, indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa egingen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu

du, Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Joan den urtarrilaren 22an, Osasuna-Sevilla partidaren pankarta bat erakutsi zen Sadar futbol-zelaian, zeinaren asmoa baitzen babesa ematea 2016ko uztailan talde batek neska gazte bat ustez bortxatzearen arioren ikertzen ari diren pertsona bati.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak adierazpen instituzional bat onetsi zuen, gertakari hori arbuizatzeko, zeharo deitoragarri eta bipil arbuizatzekotzat jotzen baitu; babesa eta elkartasuna adierazteko iragan uztailan bortxatua izan zen gazteari, bai eta haren familiari eta eraso matxisten biktima izan diren emakume guztiei ere; kezka adieraziz gizartearen edozein esparrutan jarrera eta jokabide matxistak errepikatuko ote diren, baita kirol-eremuetan ere eta, bereziki, masa-ikuskizun izateagatik berdintasuna eta errespetua sustatzeko gune izan behar duten horietan.

Era berean, Espainiako Futbol Federazioari, Indarkeriaren aurkako Batzordeari eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordeari eskatzen zien hartu beharreko neurriak har ditzaten, Sevillaren jarraitzaile batzuek atzo izanda-

ko jarrera bezalakorik ez dadin berriro gerta futbol-estadioetan; eta ikerketa bat abiaraz dadin exigitzen du, emakumeen aurkako indarkeria-egoera horiek desagerrarazten laguntzeko.

Gertakari horren tratamendua bestelakoa izanen zen baldin eta Espainiako Futboleko Errege Federazioaren diziplina kodeak, bere 69. artikuluan, indarkeriazko ekintzatzat esplizituki jaso balu emakumeen aurkako indarkeria, futboleko arrazista, xenofobo eta intolerante gisa aurreikusita daudenez gain.

Hori guztia dela-eta, behean sinatzen duen foru parlamentariak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Futbol Federazioa, Indarkeriaren aurkako Batzordea eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordea premiatzen ditu beren diziplina kodearen 69. artikuluan atal bat jaso dezaten, Estatuko futbol-zelaietako indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa eginen duena.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du osasun-kudeatzaileen profesionalizazioaren, burutzak gardentasunez hautatzearen eta bateraezintasunak zabaltzearen alde.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak apustu egiten baitu osasun-kudeatzaileen profesionalizazioaren, burutzak gardentasunez hautatzearen eta bateraezintasunak zabaltzearen alde.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zifra ofizialen arabera, Espainiako estatuan 127.000 sendagile dira medikuen elkargoetako kide, eta horietatik 100.000 leudeke osasungintza publikoan jardunean. Talde horretan, % 30 inguru aldi berean publikoan eta pribatuan legoke jardunean. Zenbait iturriren esanetan, zifra hori are handiagoa izan liteke.

LANBIDE MEDIKOA sektore publikoan eta pribatuan aldi berean bete ahal izateari buruzko eztabaida aspaldikoa da. Interes publikoaren eta interes partikularren arteko gatazkaz hitz egin ohi da, zenbait uste baitu profesionalen batek bere jardura pribatuak baldintzatuta har ditzakeela erabakiak eremu publikoan.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, zeinak onesten baitu Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina, arautzen ditu Nafarroan funtzio publikoko bateraezintasunak; izan ere, 57. artikuluan zehazten da zer jardura pribatu izanen diren funtzio publikoan jardutearekin bateraezinak.

Zehazki osasun arloko profesionali dagokienez, lehenik eta behin aplikatzekoa da urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubidea erregulatzen duena; hain zuzen, 10. artikulua, zeinak ezartzen baitu langile fakultatiboek eskusiboa ez den dedikazioaren aukera egin ahal izanen

dutela, nahiz eta aukera horretatik kanpo geldituko diren arlo klinikoko buruak, atalburuak, zerbitzuburuak eta oinarrizko osasun-laguntzako ekipoen zuzendariak, dedikazio eskusiboko araubidean eman beharko baitute betiere zerbitzua. Dena den, xedapen horretan orobat ezartzen da langile horiek eskusiboa ez den dedikazioaren aukera egin ahal izanen dutela behin bakarrik, 1992ko abenduaren 31 baino lehenago.

Xedapen horiek aplikatuz onetsi zen, bigarrenik, azaroaren 23ko 387/1992 Foru Dekretua, Medikuek eta Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeetako medikuek osasun sistema publikoan dedikazio ez-esklusiboz aritzeko duten aukera arautzen duena. Foru dekretuan honako hau ezartzen da hitzez hitz:

“Xedapen gehigarri bakarra.

Klinika Saileko, Atal edo Zerbitzu Burutza, edo Osasun Eskualde Oinarrizko bateko Zuzendaritza beren gain duten mediku espezialistek eta Lehen Osasun Laguntzako Taldeetako medikuek zerbitzuak nahitaez erabateko dedikazioko erregimenean eman beharko dituzte.

Beharkizun honetatik kanpo egonen dira, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak indarra hartzean ez-erabateko dedikazioko erregimenean zeuden Zerbitzu-buru, Atal-buru, Klinika Saileko Buru eta Osasun Eskualde Oinarrizkoetako Zuzendariak. Medikuek horiek erregimen horrekin segitu ahalko dute, Burutza edo Osasun Eskualde Oinarrizko Zuzendaritza berean jarraituz gero. Nolanahi ere, egoera pertsonal hori iraungitzekoa izanen da.

Lehenengo xedapen iragankorra.

Klinika Saileko, Atal edo Zerbitzu Burutza bat edo Osasun Eskualde Oinarrizko bateko Zuzendaritza bere gain duen medikuak, erabateko dedikazioko erregimenean ari bada, behin bakarrik eta 1992ko abenduaren 31 baino lehen eskatu ahalko du ez-erabateko dedikazioko erregimenera aldatzea.”

Gaur egun, Osasun Departamentuak emandako datuen arabera, Osasunbidean maila ezberdinetako 72 fakultatibo daude –BFE/albokoak, atalburuak eta zerbitzuburuak, odontologoak, OOLTko pediatriak, OOLTko medikuak eta psikiatrik–, eskusiboa ez den dedikazioaren araubidean ematen dutenak zerbitzua. Horietako batzuek, eremu publikoan besteren kontura lan egiteaz gain, norberaren kontura ere lan egiten dute. Guztira 13 pertsona dira araubide horretan lan egin eta zerbitzuburu edo atalburu direnak. Argi ez dagoena da ea dekretuan ezarritako betekizunak betetzen dituzten.

Bestalde, programa-akordioak honako hau dio Osasunari buruzko 9. puntutan:

“Osasun-kudeatzaileak profesionalizatzearen eta bateraezintasun-araubidea hedatzearen alde egitea. Alde horretatik, kudeatzaileak prozesu gardeen bidez aukeratzea ziurtatuko da, merezimenduan eta gaitasunetan oinarrituz. Gainera, beharrezkoak ez diren zerbitzu- eta atal-burutzak deuseztatuko dira, eta uzten direnak aldi baterakoak, proiektu eta helburu jakinekin lotutakoak eta barne promozioak izanen dira. Azkenik, sistema publiko profesionalak sistema

publikoan bakarrik jarduteko neurriak hartuko dira, eta bateraezintasuna arautuko.”

Konpromiso hori betetze aldera, jada urrats bat egin da; izan ere, Nafarroako Gobernuak foru agindu bat onetsi zuen 2016ko irailaren amaiera aldean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun laguntzako zerbitzuburu eta atalburuen lanpostuak bitarte baterako izendapenez betetzeko prozedura ezarri zuena. Halatan, lanpostu horiek betetzeko, merezimenduen lehiaketa egiten da, deialdi publiko bidez.

Hortaz, beharrezkoa da urrats bat gehiago egitea eta bateraezintasunak arautzea, osasun arloko profesionalek dedikazio eskusiboa izate aldera, gutxienez ere kudeaketa- eta ardura-lanpostuetan, beste autonomia erkidego batzuek funtzio publikoari buruzko beren estatutuetan jada ezarria duten bezala.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du osasun-kudeatzaileen profesionalizazioaren, burutzak merezimendu eta gaitasunean oinarriturik gardentasunez hautatzearen eta bateraezintasunak zabaltzearen alde, osasun arloko profesionalek dedikazio eskusiboa izate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du hartu beharreko neurriak har ditzan araudi indarduna gaurkotzeko eta, kasu bada, aldatzeko, osasun arloko langileen bateraezintasunak sei hilabeteko epean arautzearen, eta bermatzearen ezen arlo klinikoko buru, atalburu edo zerbitzuburu lanpostu bat edo Oinarrizko Osasun Eskualdeko zuzendari lanpostu bat betetzen duten Osasunbideko langile fakultatiboek eskusibotasuneko araubidean ematen dutela zerbitzu, eginkizun hori ez baita beste edozein jarduerari pribatuekiko bateragarria, besteren nahiz norberaren konturakoa izan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitio BSH Electrodomésticos España SAko plantillari, egiten dituen lan-aldarrikapen zilegi eta bidezkoetan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten dio BSH Electrodomésticos España SAko plantillari, egiten dituen lan-aldarrikapen zilegi eta bidezkoetan, eta orobat enpresan indarrean dauden itunak eta epai judizialak betetzearen exigentzian.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela lan-gatazka konpon dadin, Nafarroako lantegiaren jarraipena nahiz lanpos-

tuen eta lan-baldintza duinen iraupena bermatu ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere babesa eta elkartasuna adieraz diezazkion langile-plantillari.

4. Adierazpen hau langileen legezko ordezkariari eta BSH Electrodomésticos España SAko zuzendaritzari igorriko zaie”

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, 108,7 milioi euroko zor publikoa jaulki beharrari buruzkoa.*LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, 108,7 milioi euroko zor publikoa jaulki beharrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2016ko azaroaren 30ean erabaki zuen –eta hala argitaratu zen abenduaren 22ko NAO– 108,7 milioi euroko zor publikoa jaulkitzea. Gobernuak zergatik dauka premia hori?

Nafarroako Foru Komunitatearen zor publikoari dagokionez eta kontzeptu hori dela-eta Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpenarekin batera Hitzarmenaren arabera egiten diren ordainketei dagokienez:

Nafarroak zenbat diru ordaindu du 2010etik 2016ra bitarte Estatuaren zor publikoa dela-eta?

Hitzarmen Ekonomikoa berraztertzeke negoziatioei begira, proposatuko al da Nafarroak egin beharreko ordainketa hori (Estatuaren zor publikoa) murriztea edo desagertzea?

Negoziatio horien baitan, hurrengo bosturteko-rako ordaindu beharreko zenbateko osotik kenduko al da Nafarroak azken urteotan Estatuaren zor publikoa dela-eta ordaindutakoa?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroan Gobernu nazionalista bat dagoela baliatuta estatu bereki bat sortzeko subiranotasun-prozesu bat irekitzearen alde Sorturen eledunak egindako adierazpenei buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan Gobernu nazionalista bat dagoela baliatuta estatu bereki bat sortzeko subiranotasun-prozesu bat irekitzearen alde Sorturen eledunak egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sorturen eledunak esan du estatu bereki bat sortzeko subiranotasun-prozesu bat ireki behar dela, Nafarroan Gobernu nazionalista bat dagoela baliatuta. Kontuan hartuta Sortu dela zu Nafarroako Gobernuko lehendakari izatea ahalbidetu duten alderdietako bat:

Bat egiten al duzu Sorturen eledunak auzi horri buruz esandakoarekin?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Nafarroako Gobernuaren politika ekonomiko eta fiskalari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren politika ekonomiko eta fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Juan Luis Sánchez de Muniáinek,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusirik azkeneko epaiek berriro ohartarazi dutela zenbait alkatek Nafarroako udaletxeetako fatxada ofizialean ikurrina jarririk legez kontra jokatu dutela:

Expansión ekonomia-egunkariak argitaratutako datuak ikusirik –horien arabera, Nafarroa lehenengoetarikoa da enpresa-ihesik handieneko erkidegoen rankingean–,

Gobernuak ba al du bere politika ekonomiko eta fiskala aldatzeko asmorik?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatera enpresak eta inbertsioa erakartzearren Nafarroako Gobernuak egiten duen lanari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatera enpresak eta inbertsioa erakartzearren Nafarroako Gobernuak egiten duen lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

AXESOR azterlan ekonomikoen kabineteak bildutako eta Expansión ekonomia-egunkariak 2017ko urtarrilaren 24ko lehen orrialdean jasotako datuen arabera, Nafarroa da, ehunekoei erreparaturuz gero, enpresa-deslokalizazioaren balantzean daturik okerrenak dituen Espainiako erkidegoa. Halatan, bere egoitza fiskala Nafarroara ekartzea erabaki zuen enpresa bakoitzeko, 2,4k erabaki zuten Nafarroatik alde egitea. Halaber, termino absolutuetan eta konparazio desberdin batean, Nafarroa bigarrena izanen litzateke emaitza okerrenei erreparaturuz gero, -76ko galera garbia izan baitu. Katalunia bakarrik dago atzetik, nahiz eta jaso duen enpresa bakoitzeko 1,5 soilik galdu duen.

Nafarroako Gobernuaren ustez, lan egokia egiten ari al da Nafarroako Foru Komunitatera enpresak eta inbertsioa erakartzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, ama-hizkuntza gaztelania duten familien artean D eredua sustatzeari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, ama-hizkuntza gaztelania duten familien artean D eredua sustatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Ama-hizkuntza gaztelania duten familien artean zergatik sustatzen da D eredua, Unescoren gomendioen aurka?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, eremu ez euskaldunean eta euskaldunean euskaraz eta gaztelaniaz egiten den kultur eskaintzari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez euskaldunean eta euskaldunean euskaraz eta gaztelaniaz egiten den kultur eskaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Euskara Planean euskarazko kultur eskaintza bermatzeaz hitz egiten da.

– Eremu ez euskaldunean ere bermatu nahi da?

– Eremu euskaldunean kultur eskaintza hori gaztelaniaz ere bermatzeko asmorik ba al dago?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, eremu mistoan eta ez euskaldunean D ereduan matrikulatutako ikasleentzako garraio- eta jantoki-laguntzei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, eremu mistoan eta ez euskaldunean D ereduan matrikulatutako ikasleentzako garraio- eta jantoki-laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Euskara Planak garraio- eta jantoki-laguntzak ezartzen ditu eremu mistoan eta eremu ez euskaldunean D ereduan matrikulatzen diren ikasle guztientzat.

– Zenbatetsi al da zenbatekoa izanen da laguntza horien kostua?

– Laguntza horiek zergatik jaso ditzakete hezkuntza-eredu bakar bateko ikasleek?

– Horrek ez al du diskriminaziorik eragiten?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita

Galdera, euskararen normalizazioari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, euskararen normalizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Zuen ustez, zer da euskararen “normalizazioa”? EH Bilduren 2012ko programak dioena al da (“Euskal Herriko herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohiko eta lehentasunezko hizkuntza izatea”, “jakin beharrekoa”)?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, bizi diren herrialdekoak izan gabe pertsonen beren hizkuntza, kultura eta tradizioak mantentzeko eskubideari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, bizi diren herrialdekoak izan gabe pertsonen beren hizkuntza, kultura eta tradizioak mantentzeko eskubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Non bizi eta herrialde horretako nazionalak ez diren norbanakoen giza eskubideei buruzko Adierazpenak” (1985) jasotzen du atzerritar migratuek “nork bere hizkuntza, kultura eta tradizioak gordezteko eskubidea”.

– Neurriren bat hartuko al da eskubide hori bermatzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Osasun Departamentuak aurreikusten duen lan eskaintza publikoari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak aurreikusten duen lan eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako María Chivite Navascués andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den urtarrilaren 17an, lehendakariaren batzarraren esparruan, erabaki zen, besteak beste, ordezkatzeko-tasa kentzea osasuneko lan publikoaren eskaintzetan.

Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideko behin-behinekotasun handia eta langile-beharrizanak ikusita, zera galdetzen dugu:

Osasun Departamentuak aldatuko al du lan eskaintza publikorako duen aurreikuspena?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Esako presa berrian detektatutako mugimenduei buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Esako presa berrian detektatutako mugimenduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

2017ko urtarrilaren 25eko Osoko Bilkuran Lehendakaritzako, Justiziako eta Barneko kontseilariak, ahozko galdera baten ariora, baieztapen batzuk egin zituen Esako urtegiaren atzemandako mugimenduei buruz.

Gaiaren garrantziagatik, honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, aipatu kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, lehen azaldutako gaiaren honako alderdiei dago kienez:

- Ea egia den Ebroko Konfederazio Hidrografiakoak berriki ziurtatu duela Esako urtegiaren mazelan ez duela mugimendu nabarmenik atzeman, joan den azaroan egindako azken txostenean, eta mugimendua, halakorik agertzen duten lekuetan, nazioarteko sailkapenaren arabera "zeharo geldoa" dela, eta sailkapen horretako atalase baxue-na dela, horrekin guztiarekin egiaztatuz sei hilean behin egindako lehenagoko azterketetan jasotzen den joera.

- Ea egia den, arroko erakundearen azken jarraipen horren emaitzen arabera –zeinetan aztertzen diren maiatzetik azken azarora arte egindako neurketen datuak, lehen emandakoen jarraipena baitira, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren web gunean ikusgai daudenak– mazelaren mugimendua hautemanezina dela, salbu eta ezarritako tresneriaren bidez.

- Azkenik, ea badakien Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren arabera ez denik aurkitu “mazela-

ren egonkortasun-baldintzak oro har aldatu dituen inolako inguruabarrik”

- Aipatu guztia jakinagatik ere, ea uste duen obra horrek alarma sozialerako arrazoiak sortzen dituela.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakundeen bulegoetan errotuluak aldatzeari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakundeen bulegoetan errotuluak aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán

Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

– Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakundeen bulego guztietan zenbat errotulu aldatu dira 2016an, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz? Zehaztu errotuluak non aldatu diren.

– Zenbatekoa izan da urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz egindako errotulu-aldaketaren kostu osoa, errotulu berrien diseinua, produkzioa eta instalazioa barne?

– Zenbatekoa izan da Nafarroako Gobernuaren idazpuruaren, aplikazioen eta paper ofizialen aldaketaren kostu osoa?

– Zenbatekoa izan da urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz jantzi-, material- eta produktu-aldaketan izandako kostu osoa?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroan Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeko Ekintza Planeko 9. puntuan jasotzen da plana betetzeko aurrekontu-aurreikuspena, lau ardatz estrategiko oinarri hartuta.

Nola xehakatzen da aurrekontu-aurreikuspen hori, kontuan hartuta neurri zehatzak, urteko kontu-sailak eta ukitutako departamentuak?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an.

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Eguberriko, Aste Santuko eta udako oporrak aitortzen ez zitzaizkien irakasleek eta irakasle ez diren langileek Hezkuntza Departamentuari aurkeztutako errekurtsoei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Eguberriko, Aste Santuko eta udako oporrak aitortzen ez zitzaizkien irakasleek eta irakasle ez diren langileek Hezkuntza Departamentuari aurkeztutako errekurtsoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Eguberriko eta Aste Santuko oporrak aitortzen ez zitzaizkien irakasleek eta irakasle ez diren langileek zenbat errekurtsu aurkeztu dizkiote Hezkuntza Departamentuari? Zenbat, udako oporrak direla-eta?

– Zenbat errekurtsu onartu dira? Zenbat errekurtsu baztertu dira? Zenbat gelditzen dira ebazteko?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, bitarteko lan-kontratua amaiarazteagatiko kalte-ordaina dela-eta Hezkuntza Departamentuan aurkeztutako erreklamazio-eskabideei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, bitarteko lan-kontratua amaiarazteagatiko kalte-ordaina dela-eta Hezkuntza Departamentuan aurkeztutako erreklamazio-eskabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Hezkuntza Departamentuari zenbat erreklamazio-eskabide aurkeztu dizkiote funtzionarioek, oinarri harturik bitarteko lan-kontratua amaiarazteagatiko kalte-ordaina dela-eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko irailaren 14ko epaia?

– Gobernuak zenbat onartu ditu? Zenbat baztertu ditu?

– Gobernuak Europar Batasunaren ebazpena bere gain hartuko al du?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Hezkuntza Departamentuak bere langileei familia-laguntza ordaintzeko darabilen irizpideari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak bere langileei familia-laguntza ordaintzeko darabilen irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikia dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Departamentuak zer irizpide darabil Hezkuntza Departamentuaren menpeko langileentzako familia-laguntzak ordaintzeko dagokionez? Eta horien atzeraeraginari dagokionez?

– Zenbat profesional daude ukiturik? Zer zenbatakorekin?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren menpeko bitarteko funtzionarioen zerbitzu-orrian oporrak aitortzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren menpeko bitarteko funtzionarioen zerbitzu-orrian oporrak aitortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren menpeko bitarteko funtzionarioen zerbitzu-orrian oporrak aitortuko al ditu?

Halako zenbat eskabide aurkeztu dira? Zenbat onartu dira? Zenbat baztertu dira?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publiko-ko ikasleen garraioari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publiko-ko ikasleen garraioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Hezkuntza Departamentuak ba al daki zer nolako egoerak bizi izan diren Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publiko-ko ikasleen garraioaren ibilbideetako batean, garraio horretaz arduratzen den ibilgailuaren matxurak direla-eta?

– Departamentuak zer neurri hartzeko asmoa dauka, egoera horiek errepika ez daitezen?

– Departamentua harremanetan jarri al da ikastetxearekin eta kaltetutako familiekin, gertatutakoa eta hartuko diren neurriak azaltzeko? Oso kon-tuan hartu behar da desgaitasun psikiko, fisiko eta zentzumenezkoak dituzten neska-mutilak direla.

– Departamentuak zer neurri hartzeko asmoa dauka, egoera horiek errepika ez daitezen?

– Departamentuak zer arduradun jarri da harremanetan ikastetxearekin eta familiekin?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoarekin osasun publikoaren eta lan osasunaren arloetan dagoen lankidetzaren buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Euskal Autonomia Erkidegoarekin osasun publikoaren eta lan osasunaren arloetan dagoen lankidetzaren buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Iragan urtarrilaren 25ean bilera bat egin zuten Nafarroako eta EAEko osasun publikoaren eta lan osasuneko arduradunek.

– Elkarrekin lanik egin al zuten ordura arte? Zein izan da orain arteko lankidetzaren maila? Zein izanen da hemendik aitzina?

– Zer gai jorratu ziren bilera horretan? Konpromiso zehatzik hartu al zen?

– Zer lankidetzaren eremu aurreikusten dira?
Elkarrekin proiekturik abiaraziko al da?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroan hutsik dauden etxebizitzei eta Nafarroako Gobernuaren jabetzako higiezinei eta lurzati eraikigarriei buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan hutsik dauden etxebizitzei eta Nafarroako Gobernuaren jabetzako higiezinei eta lurzati eraikigarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de

Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1.- Nafarroan zenbat etxebizitza dago hutsik? Horietako zenbat dira Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak? Non daude kokatuta?

2.- Nafarroako Gobernuak eta Nasuvinsak zenbat etxebizitza dituzte? Non daude kokatuta? Nola kudeatzen dira? Entitateei laga al zaizkie? Baiezkoan, zer entitateri laga zaizkie? Nola egin da lagapena?

3.- Nafarroako Gobernuak zenbat merkataritza-lokal dauzka? Zein da horien egoera eta nola kudeatzen da horien lagapena edo alokairua?

4.- Nafarroako Gobernuak zenbat lurzati eraikigarri dauzka? Non daude eta zein da horien administrazio-egoera?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

